



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO AZAROAREN 13AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/10/30EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2018/10/30eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ERREKONDO EGUR ZERRA EM ENPRESAK, ZUBIETAKO ERROTA BIDEA 24AN EZARRITA DUTEN ZERRATEGIA ETA EGUR PIEZAK EKOIZTEKO JARDUERARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.

Esp.zk.: HZ.07/2016-281

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, ERREKONDO EGUR ZERRA EM enpresak Zubietako Errota bidea 24an ezarrita duen zerrategia eta egur piezak ekoizteko jardueraren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2016-0281
ESKATZAILEA: ERREKONDO EGUR ZERRA EM
JARDUERA MOTA: Zerrategia – egur piezen ekoizpena
NON KOKATUA: Errota bidea 24 – Zubieta

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
JARDUERA SAILKATUAK
ZUBIETAKO ERREKONDO EGUR ZERRA EMren JARDUERA
PROIEKTUARI BURUZKO HIRIGINTZA TXOSTENA

ESKATZAILEA: ERREKONDO EGUR ZERRA, S.L.
ESKAERA: ERREKONDO EGUR ZERRA, S.L.ren titularitate aldaketa.
KOKAPENA: Zubietako Errotabide 24a, Usurbil



Usurbilgo Udala

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2016-281 JARDUERA SAILKATUA

1. AURREKARIAK

- 2016ko ekainaren 6an Errekondo Egur Zerra S.L.k bere jardueraren titularitate aldaketa eskatu zuen.
- 2017ko uztailaren 7an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2017ko urriaren 19an udalak dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu dio interesatuari.
- 2017ko abenduaren 4an Julen Arteaga Iriondo arkitektoak interesatuaren izenean dokumentazio osagarria aurkeztu du.

2. TXOSTENA

Errekondo Egur Zerra S.L.k Zubietako Errotabide 24ko zerrategiaren titularitate aldaketa eskatu zuen. Udalak hainbat dokumentazio osagarri eskatu ostean hauek dira orain artean aurkeztutakoak:

- 2016ko ekainaren 6an eskaera orria eta behin behineko IFK.
- 2017ko uztailaren 7an eskaera orria, Zerrategia Legeztatze Nekazaritza Ministerioan Ordaindu beharreko tasen agiria, oraingo titularraren NANaren kopia, bi aldeen ordezkari legalek izenpetutako adostasuna eta enpresa eraketaren eskrituren kopia.
- 2017ko abenduaren 4an eskaera orria, teknikari gaituaren aitorpena, Jarduera Lizentziaren eguneraketa dokumentua (memoria eta planoak), 1978ko Nekazaritza Ministerioko baimena, laneko segurtasunari buruzko informazioa, suteen aurkako babesa, aseguru poliza eta lana eta gai sozialei buruzko Ministerioko inspezio orria.

Aurkeztutako jarduera lizentziaren eguneraketa memorian txostenaren helburua enpresaren titularitate aldaketa dela esaten da. Zerrategia 1978an legezatu zela ere adierazten da eta, txostenean esaten denez, ordutik "zerrategiak ez du izugarritzko aldaketarik jasan". Baina txosten berean 2001ean pabiloi bat eraikitze baimena jaso zela ere esaten da, besteak beste, eta, udal artxiboak kontsultatu ostean, ez da jatorrizko jarduera baimena handitzeko edo eguneratzeko inolako izapiderik aurrera eraman orain artean. Beraz, jatorrizko jarduera baimenaren (1978koaren) eta gaur egungo jardueraren artean aldaketa nabarmenak daudela ikusita, jarduera lizentziaren eguneraketa izapidetu beharra dago.

Eskaera eta dokumentazioa aztertuta honakoak esan daitezke:

- **ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK;** Dokumentuan esaten den bezala zerrategi jarduera da enpresa honek egiten duena.

Indarrean diren Usurbilgo AASSTB-ren arabera hiri lurzoruan dago, A-109 ERROTABIDEKO ZERRATEGIA eremuan. Dagokion



Usurbilgo Udala

hirigintza fitxan honako erabilerak finkatzen dira: *“Erabilera industrialak izango da egoitzazko erabilerarekin bateragarria, eta biltegi zerrategi, egurraren lehengo eraldakuntzak edo beraren lan osagarriak.”*

- **LUR KUTSATUAK:** Era berean, 4/2015 LEGEAK, ekainaren 25ekoak, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak ezarritakoa bete beharri dagokionez adierazten da, IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAEko lurzoru kutsatuen inbentarioaren arabera **zerrategiaren jarduera kokatzen den lurzoru kutsakorrek izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten lursailen inbentarioren sartuta dagoela (kodea:20073-00050).**

Horren inguruan, ingurumen teknikariaren txostena eskatzen da lurzoruaren kalitatearen deklarazioa egin behar den edo salbuetsita dagoen jakiteko (4/2015 Legeko 23 eta 25 artikulatuak). Hori dela-eta, ezinbestean beteko dira 4/2015 LEGEAK kasu hauetarako ezarritako jarraibideak.

- **JARDUERA SAILKATUA:** Handitu nahi den jardueraren ezaugarriak honakoak dira:

- ERABILERA; industrialak, zerrategia.


AZALERA; osoa ez da zehazten baina tailerrak bakarrik 305m² dituela esaten da gutxi gora behera.

INSTALATZEN DEN POTENTZIA; Ez da gaur egungoa zehaztu, baina 1978 baimenean 40CVkoa dela esaten da. (beraz, >25 Kw).

3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak II. ERANSKINean ezartzen duen bezala, erabilera industrialak (d) *Industriak oro har*) jarduerak sailkatuak dira. Beraz, Errekondo Egur Zerra S.L.k aurkeztu duen jarduerak baimenaren eguneraketa hau baimentzeko **jarduerak sailkatuentzat zehazten den prozedura jarraitu behar da.**

Ondorioz, Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, **Neurri Zuzentzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu. Osasun Sailaren oniritzia ere behar da.**

- **ISURKETAK:** Jarduera dela-eta egin beharreko isurketak ahalbideratzeko dagozkion Añarbeko Urak-en baimenak behar dira eta edonola, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako baldintzak betetzea. Baimenak eta gainontzeko egiaztagiriak aurkeztu behar dira ezinbestean jardueraren irekiera baimena lortzeko.



Usurbilgo Udala

3. ONDORIOAK

Usurbilgo hirigintza arauen arabera jarduera kokapenaren egokitasunaren inguruan **ALDEKO hirigintza txostena** idazten da. Horrekin batera, esan beharra dago, **jarduera sailkatua izanik haientzat ezarritako izapidetzea jarraitu beharko dela. Bestalde, lur kutsatuen inguruan, ingurumen teknikariaren txostena eskatzen da lurzorua kalitatearen deklarazioa egin behar den edo salbuetsita dagoen jakiteko.**

Ohartarazten da, **jarduerak ezinbestean bete beharko dituela Suteen Aurkako Babeserako neurriak (Eraikin Industrialen Suteen Babeserako Neurrien Erregelamendua, EKT, e.a.).**

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna.

Usurbilen, 2018ko apirilaren 3an
Izta.: Jone Miner Aginaga
UDAL ARKITEKTOA

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Maite Garcia Azurmendi andereak, honako txostena eman du:

TXOSTENA ERREKONDO EGUR ZERRA EM, TITULARITATE ALDAKETA. LUR KUTSATUEN TXOSTENAREN BEHARRAREN BALORAZIOA.

GAIA: Errekondo Egur Zerra EM-k jarduera lizentzia berritzeko lur kutsatuen txostenaren beharrezkotasunaren balioespena
UDAL TEKNIKARIA: Maite Garcia Azurmendi
ESPEDIENTE ZBKIA.: HZ.07/2017-0281
DATA: 2018-11-08

AURREKARIAK

2018ko apirilaren 3an, udal arkitektoak, jatorrizko baimenaren eta gaur egungoaren artean aldaketa nabarmenak daudela ikusirik, jarduera lizantziaren eguneraketa izapidetu beharra ikusi du. Horretarako, jarduera sailkatua izank, besteren artean, Lur Kutsatuen inguruko txostena eskatzen du.

ARAUDIA


4/2015 legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioak arautzen dituen laugarren kapituluko 23. artikulua 1a egoera bada ere txosten honen aztergaia, 25. artikuluan adierazten diren *Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozeduretatik salbuesteko kasua* dela ondorioztatu da.

AZTERKETA



Usurbilgo Udala

Zerrategia 1978an jarduera baimena eman geroztik, bertan pabilioi bat eraikitzeke baimena jaso zuten. Pabilioi berria, Eusko Jaurlaritzako Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan kokatzen da (ikusirik irudia).



PROPOSAMENA

Azterketatik ondorioztatzen da, 25. artikuluko 1c egoeran aurkitzen dela, hau da:

Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat handitu edo aldatzean, handitu edo aldatu nahi den jarduera edo instalazioak hartzen duen lursailaren muga barruan egiten bada.

Beraz, Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozeduretatik salbuestsi daiteken kasu baten aurrean gaude.

Hala ere, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan egonik ondorengo kontutan izatea eskatzen da: lurzorua kutsatuta egon daitekeenaren zantzurik izanez gero, 4/2015 legearen 23. artikulua 1.e atalak diona kontutan izatea. Hau da: arriskua eragin ahal izateko adinako kontzentrazioetan lurzoruan substantzia kutsatzaileak daudelako zantzu oinarrituak badaude Udalarik eta Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoari jakinaraziko zaio, hauek beharrezko pausoak abia ditzaten.

Laburbilduz, jarduera sailkatu honek EZ du LURZORU KUTSATUEN inguruko TXOSTENIK aurkeztu behar.

Maite Garcia Azurmendi
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

Udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ERREKONDO EGUR ZERRA EM enpresak, Zubietako Errota bidea 24an ezarrita duen zerrategia eta egur piezak ekoizteko jarduerari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako ingurutzatzaileak, egungo Planifikazio



Usurbilgo Udala

Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

BIGARRENA: Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

HIRUGARRENA: Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.

3.- ZUBIGUNE FUNDAZIOAK ZUBIETAKO LANBIDE ESKOLAN ERAIKITAKO 4.0 PRESTAKUNTZA LANTEGI BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp.zk.: HZ.04/2017-0399

ZUBIGUNE FUNDAZIOAK (IFK: G75051698), Zubietako lanbide eskolan eraikitako 4.0 prestakuntza lantegi berriaren lehen erabilera baimena eskatu.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko apirilaren 24ean, ZUBIGUNE FUNDAZIOARI (IFK: G75051698), lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko obretarako udal ematea ematea erabaki zuen.

| OBRAREN EZAUGARRIAK | |
|---------------------------------------|---|
| Exekuzio materialeko aurrekontua: | 195.769,63 € |
| Obra Amaiera partzialaren PEM: | 195.755,02 € |
| Obrari dagozkion hobariak: | Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak. |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 3.105,33 € Fidantza (%120): 3.726,40 € |

LEHEN ERABILERA

Orain berriz, ZUBIGUNE FUNDAZIOAK, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, Zubietako lanbide eskolan eraikitako 4.0 prestakuntza lantegi berriaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Miren Dorleta Erausquin Alijostes andereak, 2018ko urriaren 29an honako txostena eman du:



Usurbilgo Udala

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
LEHEN ERABILERA
USURBILGO LANBIDE ESKOLAN, 4.0 PRESTAKUNTZA LANTEGI BERRIA
ERAIKITZEKO BAIMEN ESKAERAREN LEHEN ERABILERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Usurbilgo Lanbide Eskola. SGED-6. Usurbil.
ESKAERA DATA: 2018ko urriaren 10ean.
ESKATZAILEA: ZUBIGUNE FUNDAZIOA
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2017OHAN0010/HZ.04/2017-0399
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 195.769,63 euro
OBRA AMAIERAREN PEM: 195.755,02 euro

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 3.105,33euro
(%120): 3.726,40 euro

Fidantza

AURREKARIAK

- 2017ko uztailaren 26an Usurbilgo Lanbide Eskolaren izenean bertan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitze baimen eskaera egin da.
- 2017ko abuztuaren 17an udal arkitektoaren aldeko txostena.
- 2017ko irailaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak udal baimena eman zion.
- 2018ko otsailaren 23an Zubigune Fundazioak exekuzio proiektua aurkezten du.
- 2018ko martxoaren 12an udal arkitektoaren aldeko txostena egin du.
- 2018ko apirilaren 12an mantenu eta zerbitzu sailaren txostena.
- 2018ko apirilaren 12an zuinketa akta izenpetzen da.
- 2018ko maiatzaren 28an dokumentazio osagarria aurkeztu da.
- 2018ko abuztuaren 16an dokumentazio osagarriari aldeko txostena
- 2018ko urriaren 16an behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du.
- 2018ko urriaren 17an dokumentazio osagarria aurkeztu dute.
- 2018ko urriaren 26an dokumentazio osagarria aurkeztu dute.
- 2018ko urriaren 29an behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du.

TXOSTENA

Xabier Aguirre Alzuru jaunak 2018ko urriaren 10ean Usurbilgo lanbide eskolako 4.0 Prestakuntza Lantegi berriko obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du. Eskaera orriarekin batera honako hauek aurkeztu ditu: obra amaierako ziurtagiria, obra amaierako obralari zuzendariak izenpetu eta dagokion kolegioak oniritzitako azken likidazioa, kanpokaldeko argazkia, hondakinaren kudeaketaren azken txostena, EKTA betetzen duenaren ziurtagiria, proiektorekiko aldaketak eta obra amaierako planoak.

2018ko urriaren 2018ko urriaren 17an 68/2000 dekretuaren justifikazioa eta urriaren 26an su itzalgailuen ziurtagiria aurkeztu dira.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- BERTARATZEA:

2018ko uztailaren 23an behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du. Bertan ikusi da biltegia erabiltzen ari direla baina bulego gunea ez dagoela erabileran, su itzalgailuak eta emergentzi argiak jarri dituzte, eskailera su aurka babestu dute eta baita sabaia ere, baina ez dute beste ezer egin, ez daude erabilgarri. Pabiloiaren biltegi gunean, egikaritu dena planoekin bat dator eta su itzalgailuak, barrerak, e.a.



Usurbilgo Udala

planoan agertzen diren puntoetan daude.

- DOKUMENTU OSAGARRIAK:

2018ko uztailaren 24ean aurkeztutako dokumentazio osagarrian, planoetan ondo agertzen da erabili ezin daitezkeen guneak. Idatzian bulego guneak ez direla erabiliko agertzen da eta beraz publikora irekiak ez direla egongo ziurtatzen da.

- HONDAKINEN KUDEAKETA:

DSC ak ahalik eta azkarren bidaliko dituztela adierazten da uztailaren 11ean aurkeztutako dokumentazioan.

- OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: Aurkeztu den likidazioaren arabera, Exekuzio Proiektuarekiko igoera egon da obra amaieran, beraz, **Kontuhartzaitza Sailari jakinarazten zaio Obra Baimen tasaren egokitzapena egin beharko dela, obra amaierako likidazioa 400.203,36 eurotako izanik.**

- DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA: 2018ko urriaren 10ean aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eraikuntzako sarreran ere aldaketak egin dira eta horren justifikazioa eskatu zaie telefonoz 2018ko urriaren 17an egun berdinean aurkeztu dute erregistroan.

- HONDAKINEN KUDEAKETAREN FIDANTZA: hondakinen kudeaketaren amaiera txostena aurkeztu dute baina ez da fidantzaren jartzearen dokumentaziorik aurkitu beraz ez da bueltatu behar.

- P.E.M.: Exekuzio proiektuko PEM-a 195.769,63 eta obra amaierako 195.755,02 eurokoa da (desberdintasuna oso txikia da).

- OBRA AMAIERAKO PLANOAK: Obra amaierako planoak baimendutako proiektuarekin alderatuta irizten da orokorrean ez dela aldaketa nabarmenik eman, obra amaierako dokumentazioan aurkeztutako eta 2018ko abuztuaren 16ean aldeko txostena izan zuen beheko solairuko egituraren aldaketa eta eraikuntzarako sarrera dira egin diren aldaketa nabarmenenak. Obraren, kanpokaldean txapazko erremate batzuk falta dira, eraikitze enpresak ahalik eta azkarren jarriko dituela adierazi da.

- BERTARATZEA: Behean izenpetzen duen teknikariak 2018ko urriaren 16an egindako bertaratzean ikusi du oraindik su itzalgailuak eta seinaleak jarri gabe daudela eta eraikinan txapazko zenbait elementu oraindik jartzeke daudela.



Usurbilgo Udala

2018ko urriaren 29an bigarren bertaratze bat egin da bertan, suitzalgailuak eta seinaleak jarriak daudela ikusi da.

ONDORIOAK

Beraz, goian esandakoari jarraiki, lehen erabileraren ALDEKO txostena idazten da.

Beti ere kontutan izan beharko da indarrean den legediaren arabera jarduera martxan jartzeko ezinbestekoa izango dela jardueraren aurretiazko komunikazioa egitea. Horrekin batera, lehenbailehen Lanbide eskolaren jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.

Haxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2018ko urriaren 29an
Izta.: Miren Dorleta Erausquin Alijostes
UDAL ARKITEKTOA

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: ZUBIGUNE FUNDAZIOAK (IFK: G75051698), Zubietako lanbide eskolan eraikitako 4.0 prestakuntza lantegi berriari lehen erabailera baimena ematea honako baldintzarekin:

- Beti ere kontutan izan beharko da indarrean den legediaren arabera jarduera martxan jartzeko ezinbestekoa izango dela jardueraren aurretiazko komunikazioa egitea. Horrekin batera, lehenbailehen Lanbide eskolaren jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.

BIGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.